



# GOBERNU PLANA

2023/27





Debar hori:

2023-2027 legealdirako Gobernu Plana aurkeztu nahi dizut, EAJ-PNVk eta Orain Debak osatutako gobernu taldeak datozen urteetan Deban garatu nahi ditugun jarduerekin.

Deba nortasun propioa duen herria da, itsasoari lotua, euskalduna, besoak zabalik dituen herria, bai bisitarien eta baita Debara bizitzera etorri diren guztientzat ere. Gure lurraldeari oso lotuta dagoen herrian bizi gara, eta aldi berean, munduari irekita gaude. Aukera-berdintasuna bermatzeak lehentasuna du guretzat, kultura sustatu eta babesten dugu, lehen sektorea, industria eta turismoa ditugu motor, eta hazkunde ekonomikoarekin eta sozialarekin konpromiso irmoa dugu, gure eskualdeko udalerriekin harreman sendoak mantenduz. Zuek, debarrak herriak izango duen garapenaren parte izatea nahi dut, eskuartean duzun programa hau elkarrekin aurrera eramatea. Hori da Deba bizitzeko herririk onena bihurtzeko bide bakarra.

Hitza eman nizun: Deba etorkizunera begiratuko duen herria izango zela.

Gobernu Plan honetan, emandako hitza betetzera etorri garenaren konpromisoa duzu. Debak hasia du aurrera bidea, guztion bizi kalitatea hobetzeko lan egingo dugu, debar bakoitzarena, inor atzean utzi gabe. Debaz harro sentituko gara.

Udal gobernu taldeak osatzen dugunon hitza duzue, erantzukizunez jokatu dugu, gure esfortzua eguneroko lanean jarriko dugu, zintotasunez, zorrotasun ekonomikoarekin. Debarako proiektu garrantzitsuak garatuko ditugu, belaunaldi berrientzat enplegua sortzea dugu helburu. Debarra zarete gure helburu nagusia: Debako familiak, adinekoak eta gazteak... komunitate hau osatzen dugu guztiok.

Eskuartean duzun dokumentu hau da zurekin hitzartu genuen Deba. Orain, bidea elkarrekin egitera animatu nahi zaitut. Dokumentu ireki honi ekarpenak egitera gonbidatu nahi zaitugu, zu entzun, eta zure proposamenak jaso. Debarako etorkizun hobe bat dugu helburu, eta elkarrekin lortuko dugu.

## UDALERRIA PERTSONENTZAT

### ZAINTZA EKOSISTEMA

Adinekoak eta euren ingurukoak erdigunean jarrita, beren etxeetan arreta jasotzeko baliabideak handitu eta hautentzat arreta zerbitzu berriak martxan jarri.

### ZAHARTZE AKTIBO ETA OSASUNTSUA

Zahartze prozesu aktibo eta osasuntsuaren sustapen ekintzak, hauen orientazio, ahalduntze eta bizimodu aktibo eta osasuntsua helburu izanda.

### ZAINTZA SOZIOEDUKATIBOA, LANA ETA FAMILIA

Bateragarriak izan daitezen, hainbat ekintza garatu eta bultzatu. Zaintza sarea indartu eta ludoteka ahalbidetu.

Arriskuan dauden adingabeei eta haien familiei arreta berezia eskaini.

### GAZTEEN PARTE-HARTZEA

Entzute aktiboa sustatu eta bide berriak abian jarri, Debako gazteek eragin zuzena izan dezaten etorkizunari begira.

### BERDINTASUN PLANA 2024-2027

Berdintasuna gizarte erronka komun bihurtuz, plana diseinatu eta ezarri.

### INDARKERIA MATXISTA

Gaur egun dagoen protokoloa eguneratu eta indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeek merezi duten aitorpen soziala eta babesa jasotzen dutela bermatu.

### MIGRATZAILEENTZAKO HARRERA PROTOKOLOA

Debara etorri berri diren biztanleei harrera egiteko jarraibide egituratu eta praktikoa eskaini, udalerrian hobeto eta errazago integratu daitezten.


## AUKERAK ESKEINTZEN DITUEN HERRIA

### TOKIKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA DINAMIZATZEKO PLANA

Debako negozioak sustatu eta dinamizatuko dituen plana egin eta ezarri. Lehiakortasuna hobetzeko proiektuak garatzeko orduan bidelagun izan elkarte eta eragileekin elkarlanean.

### UDAL MERKATUAREN SUSPERTZEA

Paseo estaliko berrikuntzarekin batera, tokiko merkatalgune bihurtu eta bertako produktuak lehenetsi, hurbileko ekoizleei salmenta leku egoki bat eskaini eta herritarrei elikadura osasuntsu eta aberats batez gozatzeko aukera eman.





## IRISGARRIA, JASANGARRIA ETA SEGURUA

### ITZIAR-DEBAKO ENPRESA PARKEAREKIN ELKARLANA

Industria gunea berrindartzeko pausoak eman, lanpostu berriak sortzeko aukerak izan daitezten.

Enpresa parkearen lehiakortasunean eta erakargarritasunean lagundu.

### TURISMOA: ESTRATEGIKOA

Deba berriro ere dagokion lekuan kokatu. Turismoari begirada goxoz begiratuko dion udalerrria izatea, honek dakartzan onurez baliatuta.

Ondarea ezagutzera eman eta sektoreko enpresak bultzatu.

### IRISGARRITASUN PLANA

Deba irisgarriagoa izateko datozen urteetan egingo ditugun jarduketan plangintza ezarri.

### HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA (HAPO)

HAPOaren lanketarekin, herriaren garapenaren estrategia eta lurzorua okupazioa ezarriko dira, lurzoru guztiak hiritar, urbanizagarri edo urbanizaezin kategorietan sailkatuz.

### UDAL JASANGARRITASUN ENERGETIKOA

Udalarenak diren hainbat eraikinen energia kontsumoaren lanketa egin eta murrizteko bideak aztertu.

### KALE ARGITERIA

Kale argiteria berritu, hobetu eta jasangarriago izateko pausoak bideratu, kontsumoa jaitsiz eta segurtasuna bermatuz.

### ENERGIA BERRIZTAGA- RRIEN GARAPENA, KLIMA ALDAKETARI AURRE EGI- TEKO

Udala bidelagun tokiko energia komunitateak sortu daitezten, lehen pausuetan babes eta gidaritzea lanak eginez.

### GUDARIEN PLAZA

Oinezkoak lehenetsi eta elkarbizitzarako gunea berri bat sortu.

### PASEO ESTALIA

Paseo estaliaren eraldaketa Next Funtsen dirulaguntzen bitartez, erabilera anitzeko espazio berri bat sortuz.

### AGENDA 2030

2030 Agenda garatzeko plana martxan jarri, udalerrri bidezkoagoa, berdeagoa, oparoagoa eta baketsuagoa lortzeko eta gizarte eta ekonomia arazo larriei aurre egiteko.

### ALAMEDA

Gaur egungo beharretara egokitu, berriztu eta eraldatu. Horrelako altxorrek merezi duen zaintza eta kudeaketa bermatu.

### LUZAROKO PATIOA

Ikasleen artean joko libre, sormena eta elkarrekintza sustatuko dituen aire zabaleko espazio bat sortu, hezkuntza inklusiboagoa eta osasungarriagoa sustatuz.

### JOLAS-GUNEA ESTALIA

Aztertu, kokapena landu eta ahal bada egikaritu.

### UDALTZAINGOA

Zerbitzuak hobeto eta modu eraginkorrean emateko aukera zabaldu eta herritarrengandik hurbilago jarri.



## AUZOAK

### ITZIARKO AUZO UDALARE- KIN ORPOZ ORPO

Itziarko Auzo Udalarekin elkarlana bultzatu eta bideratu. Proiektu estrategikoetan bidelagun izango gara lankidetzaren sinergiak aprobetxatuta.

### ITZIARKO ESKOLA BERRIA

Eskola berriaren berritzea bultzatu, familien beharretara egokituz. 12 urte arteko gazteak bertan ikas dezaten bermatuz.

### LANDA EREMUAREN GARAPENA

Landa eremuari eta bereziki baserritarren beharrei erantzun. Arreta berezia jarri azpi-egitura eta mantentze lanetan eta beste erakunde eta eragileekin batera hauei irtenbidea eman, proiektu eta diru laguntzak bideratuz.

### AUZOETAKO JAIK

Jaiak babestu eta diruz lagundu. Horretaz gainera, indartzen saiatu auzokideen parte-hartzearekin.



## KULTURA ETA GURE NORTASUNA

### KULTURA DENONTZAT

Adin guztietakoentzat kultur jarduerak antolatu eta sustatu, herriaren nortasuna mantenduz eta garatuz.

### KULTUR EKIPAMENDUA

Hain beharrezko eta garrantzitsu ditugun kultur jarduerak antolatu eta gozatu ahal izateko azpiegitura bat lortu.

### EUSKARA AREAGOTU

Programa desberdinak bultzatu: guraso eta etorri berrientzat euskara-eskolak, seme-alabekin jolas egiteko tresnak eskuragarri jarri eta merkatari-ostalarientzat programa bereziak sustatu.

### EUSKAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

Plan estrategikoaren onestea eta plana kudeatzeko era hobetzea, herritarren partaidetza bermatuz.

### KULTUR ETA KIROL TAL- DEAK

Debako kultur eta kirol taldeei dirulaguntzak bideratzea hauen jarduerak babestuz eta udal-aganen sartuz.

### KIROL EKIPAMENDUAK

Udalarenak diren kirol-ekipamenduak hobetu eta kirol-talde desberdinen eta herritarren beharretara egokitu.

### MEMORIA HISTORIKOA

Memoria berreskuratu, ezagutarazi eta ondorengoei transmititzearan helburuarekin, nondik gatozen argi izatea.



# UDAL HURBILA ETA ARDURATSUA

## HERRITARREN AHOTSA

Herritarren zerbitzura eta beti entzuteko prest, komunikazio bideak zabaldu. Esan Udalariren bitartez, Alkatearekin aurrez aurreko bilerak eskainiz eta baita zinegotzi zein teknikariek harremanak erraztuz.

## UDALAREN WEB-ORRIA

Gaur egungo erabiltzaileen beharretara egokitu, gardentasun kultura sustatuz, kudeaketa, jardunak eta tramiteak herritarrei erraztuz.

## ADMINISTRAZIO DIGITALA

Martxan jarri eta beharrezkoak diren azpiegitura teknologikoak ezarri, transformazio digitalean aurrerapausoak emateko.

## UDAL ORDENANTZAK

Errealitate berriari erantzuna eman ahal izateko, ordenantza berriak garatu eta daudenak gaurko errealitatera egokitu.

## AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

Herritarrek beraien lehentasunak adierazteko bidea zabaldu eta maite duten herrian proiektuak garatzeko aukera eman.

## UDAL-ALDIZKARIA

Udal-aldizkari eta buletinaren dibulgazioa egin, udal-jarduerei buruzko informazio zabaldu eta gainerako gaien jarraipena herritarrekin partekatu.

